

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**2023-2027 agintaldiari
ekin dio udalak**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

2023-2027 agintaldia	3
Ardura banaketa	5
Elkarrizketa	6
Udal osaketa	10
Larringo industriagunea	14

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91



Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Udako ordutegian, 7:30etik 14:30era izaten da irekita astelehenetik ostiralera.



2023-2027 agintaldian berriro Nagore Alkorta izango da Azpeitiko Alkatea

Ekainaren 17an hasi zen 2023-2027 agintaldia karguak hartuta. 17 zinegotzi izango dira Azpeitian; 10 Euskal Herria Bildukoak eta 7 Eusko Alderdi Jeltzalekoak

Nagore Alkorta izango da 2023-2027 agintaldian berriro Azpeitiko alkatea. Pleno aretoa herritarrez beteta zela eratu zen, ekainaren 17an, 2023-2027 agintaldirako udal korporazio berria. Maiatzaren 28ko hauteskundeetatik hiru astera hartu zuten kargu publikoa zinegotzi berriek. Hala, Alkorta EHBilduko alkatea eta beste 9 zinegotzik eta EAJko 7 zinegotzik osatzen dute udalbatza: Nagore Alkorta, Leire Goenaga, Joanes Amenabar, ander

Larrañaga, Leire Sasasua, Mikel Odriozola, Idurre Zabaleta, Jon Oteiza, Aitor Larrañaga eta Miren Arrieta dira EH Bilduko hautetsiak. EAJkoak, berriz, Jabier Altuna, Nerea Aldai, Antonio Gallarin, Hegoa Larzabal, Jokin Badiola, Edurne enparan eta Alexander Silva dira.

Zinegotzi karguari zin egin ostean, alkate izendatzeko botazioa egin zuten eta Nagore

Alkortak bederatzi boto jaso zituen eta Jabier Altunak zazpi (Miren Arrieta ez zen plenoan izan); beraz, Alkorta izendatu zuten Azpeitiko alkatea, bigarrenago agintaldiz jarraian. Aitor Larrañagak eman zion aginte zumitza Alkortari eta alkate aulkian eserita, hunkituta, eskerrak ematen hasi zuen hitzartzea: "Lau urte pasa dira azpeitiarrak lehenengo aldiz Azpeitiko alkate izateko aukera eta eta ohorea eman zenidatenetik. Azkar esaten da, lau urte, baina lau urte lanez beteak, proiektuz beteak, zailtasunez eta erronkez beteak izan dira. Lau urte pasa dira Azpeitiko lehen emakume alkatea izateko aukera eman zenidatenetik. Eta hemen gaude berriz. Horregatik, lehenik eta behin, eskerrik asko bihotz-bihotzez Azpeitiko herriari".

"Pozez, erantzukizunez eta arduraz" hartzen duela berriro alkate izateko erronka adierazi zuen:



Nagore Alkorta: "Gure gobernatzeko eran, zaintza lanetan aritzen diren emakumeen adorea, profesionaltasuna eta kemena nahi nuke izan"

"Azpeitiar guztiengan pentsatzen gobernatuko dugu, gure herriaren erronka nagusien aurrean herri gisa jokatu behar dugula sinisten dugulako. Azpeitiar guztientzat eta batez ere azpeitiar guztiakin gobernatu nahi dugu". Gobernatzeko duten eran sakontzeko konpromisoa ere adierazi zuen, eta zaintza lanetan aritzen diren emakumeei egin zien erreferentzia: "Gure gobernatzeko eran, zaintza lanetan aritzen diren emakumeen adorea, profesionaltasuna eta kemena nahi nuke izan. Askotan, gehiegitan errekonozimendurik gabea. Haien ereduak presente izango dut eta eredu horretatik, bizitza bera jarri nahi nuke erdigunean". Azpeitira bizitzeko aukera berrien bila etorri ziren eta datozenen "indarra eta ausardia" nahi dituela, eta "beraien lanaren eta kulturaren ekarpena egiten digutenen ereduak nigan egongo" dela ere azaldu zuen. Natur ingurunearen "babesa eta harekiko

maitasuna dutenen kontzientzia presente" izango dituela erronka berriei ekiterakoan ere azpimarratu zuen. Eta kultura eta hizkuntza "maite, dinamizatu eta arnasberritzen dutenen ekina nere egin nahi nuke Azpeitia gobernatzean".

Oinarrizko beharren aurrean zaurgarrien diren azpeitiarrak, eta batez ere, emakumeak; aukera berriak sortzeko eta bide berriak ibiltzeko ekintzailetasuna eta kemena duten azpeitiarrak eta lan eskuzabalarekin Azpeitia bizia posible egiten duten elkarte, sare eta kolektiboetan ari diren azpeitiarrak eguneroko lanean presente izango dituela ere hitz eman zuen.

Elkarlanerako eskua luzatuta

Herri gisa jokatu, herri gisa ekiteko eskua luzatu zien udaleko gainerako ordezkariari eta, batez ere, azpeitiarrei Azpeitiak dituen epe labur, ertain eta luzeko erronkei herri gisa aurre egiteko: "Azpeiti hobe bat, justuago eta bizigarriago bat egiten jarraitzeko".

Bukatzeko, lehen alkate emakume izaterari egin zion erreferentzia: "Ederra da maite duzun herriaren ordezkaria izatea. Are ederragoa, zure aurretik aukera hori izan ez zuten emakumeen ordezkaria ere izatea. Ohorea da lau urte eta gero berriz ere Azpeitiko alkate izatea eta Azpeititik mundu hobe baten alde lan egiteko aukera izatea".

Jabier Altuna EAJko bozeramaileak ere hartu zuen hitza. "Herriak oposizioan jarri gaitu eta oposizioa egingo dugu. Hitz ematen dut oposizioa errespetuzkoa eta leiala egingo dugula. Gu programa batekin gatoz eta hori defendituko dugu. Zuen proposamenak herriaren onerako direla uste dugunean babestuko ditugu eta bestela oposizioa egingo dugu. Esan bezala leialtasunez eta errespetuz".



Jabier Altuna: "Herriak oposizioan jarri gaitu eta oposizioa egingo dugu. Hitz ematen dut oposizioa errespetuzkoa eta leiala egingo dugula"

Ardura banaketaren eta aurrera begirako erronken berri eman die Udal Gobernuak eragileei



Ekainaren 28an egin zuen udalbatza berriak lehen plenoa eta han ardurak banatu zituzten. Batzorde edo arlo bakoitzeko arduraduna zehaztuta, hurrengo egunean eragileekin bilera egin zuten. Bertan, zinegotzi berriak nortzuk ziren azaltzeaz gain, bakoitzaren arduren berri eman zuten. Ardura kontuez gain, arlo bakoitzeko asmo eta erronken berri ere eman zuten. Bileraren ostean, elkar ezagutu eta hitz egiteko tartea ere izan zuten.



“Azpeitiar guztiontzako
gobernatuko dugu;
herritarren beharrak
erdigunean jarrita”

Nagore Alkorta
Azpeitiko Alkatea

Ekainaren 17an Nagore Alkorta Elorzak, bigarrenkoz, Azpeitiko alkate kargua hartu zuen. 2023-2027 agintaldiari indartsu eta gogoz ekin dio. Taldea du oinarri eta Udal Gobernuako aurpegiaren artean aurretik datozenak zein berriak ditu. Ilusioz dago abiatutako proiektuei bultzada emateko eta berriak lantzen hasteko.

**Azpeitiari eta azpeitiarrei
gure onena eskaintzeko
prest gaude**

Bigarrenkoz beteko duzu Azpeitiko Udaleko alkate kargua.

Bai, azpeitiarrek hala bozkatuta beste lau urtez Azpeitiko alkatea izango naiz. Eta pozik nago. Azpeitiari eta azpeitiarrei gure onena eskaintzeko prest gaude. Aurreko agintaldia nahasia eta gogorra izan da, ez ohiko gauzak izan ditugu; baina, hala ere, proiektu asko lantzeko aukera izan dugu. Oraingoan landutako proiektu horiek errealitate bihurtzeko lan egingo dugu. Azpeitiar guztiontzako gobernatuko dugu; herritarron beharrak erdigunean jarrita.

Taldean jende berria eta errepikatzen dutenak dituzu.

Bai, esperientzia haize berriaren freskotasunarekin nahastuta dugu. Udal Gobernua 10 zinegotzik osatzen dugu; arlo desberdinetatik gatozenak. Eta gustura nago

dugun taldearekin. Hasi gara lanean eta Azpeitiaren alde lan egiteko gogo eta ilusio askorekin gaude. Azpeitia eraldatzen jarraitzeko primerako taldea dugu.

Eragileekin egin duzue lehen bilera.

Herritarrei nor garen eta zein izango diren gure ardurak aurkeztu genizkien ekaina bukatzerako. Hitzordu polita izan zen. Asmoen eta arduren berri emateaz gain, eragileekin lasai egoteko aukera eskaini zigun. Aurrez aurre elkarrekin egon eta hitz egiteko aukera egokia izan zen, datozen lau urteetan ere elkarrekin lan egitea dagokigu eta. Eragileek ere eskertzen digute.

Azpeitia eraldatzen jarraitzeko primerako taldea dugu



Nolakoa aurreikusten duzu agintaldi berria?

Erronka handiak ditugu aurretik. Adinekoen zaintza, krisi klimatikoa eta trantsizio energetikoa... hitz handiak dira. Baina guk, gure txikitik eragin dezakegu arazo horietan ere, eta neurriak hartzen hasi.

Adinekoen zaintza aipatu duzu. Zaintza ekosistema berri bat eraikitzea da helburua?

Bai, hori da. Gizartearen zahartzea errealitate bat da. Gaur egun, pertsona batek, jubilatzen denean, bizi proiektu bat eraiki behar du; oraindik urte asko ditu bizitzeko. Horregatik, adinekoen egoeraren eta garapenaren arabera, zerbitzu desberdinak behar ditugu. Alde batetik, zahartze aktiboa sustatu behar dugu, eta ekintza desberdinak eskaini aktibo mantentzeko. Eta, bestetik, mendekotasun egoera desberdinei aurre egiteko zerbitzu eta baliabideak eskaini. Horretarako, etxek etxeko eta etxek etxeko zerbitzu integrala, eguneko unitatea, eguneko zentroa eta San Martin egoitza dauzkagu. Laster, etxe tutelatuak ere jarriko ditugu martxan. Helburua adinekoen beharren arabera zaintza pertsonalizatua eskaintzea da.

Horretarako giltza Perdillegin egingo den zentro berria izango da?

Zaintzaren arloan aldaketa asko eman behar dira. Pertsona zerbitzura egokitzeari utzi eta zerbitzua da pertsona bakoitzera egokitu behar dena. Pertsonaren beharrak jarri behar ditugu zerbitzu guztien erdigunean. Eta horretarako eta zaintza ekosistema integral berria sortzeko azpiegitura eta zerbitzu ezinbestekoa izango da zentro berria.

Zentro berri bat ez da egun batetik bestera egiten. Baina prozesua aurrera doa. Prozesu honetan, gainera, hausnarketarako eta zaintzaren erronka berriei aurre egiteko aukerak lantzen ari gara, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.

Pertsona zerbitzura egokitzeari utzi eta zerbitzu da pertsona bakoitzera egokitu behar dena. Pertsonaren beharrak jarri behar ditugu zerbitzu guztien erdigunean.

Etxebizitza eta ekonomian ere apustu sendoak dituzue.

Etxebizitza eskubide subjektibo bat da, eta herritarrei hori bermatzeko helburuz, eta abian jartzen diren politikak sendotzeko helburuz, aurreko agintaldian Etxebizitza Plana osatu genuen eta, besteak beste, herritarrei arlo horretako informazio eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen zaie. Etxebizitza Planean jasotakoa abian jartzen joango gara. Bertan aipatzen dira, bulegoaz gain, etxebizitza hutsak mobilizatzea, babes publikoko etxebizitzak sustatzea eta etxebizitza parkearen birgaitzea.

Eskaintzari dagokionez, aurreratu bezala, Santutxon eta Elizkalean babes publikoko etxebizitzak egitea aurreikusten dugu. Horretaz gain, epe laburragoan, Esklabetako alokairu sozialeko etxebizitzak jarriko ditugu martxan. Apartamentu horien helburua herriko gazteen emantzipazioa errazten laguntzea da. Eta, aurreikuspenak betetzen badira, urtearen bukaerarako obrak bukatuta izango dira.

Azpeitiko enpresei bertan hazteko aukerak sortu eta kanpokoei hona etortzeko gune erakargarriak sortzeko ari gara lanean

Landetako Plan Bereziak eta Larringo industriagunea gauzateko Plan Orokorren Aldaketaren tramitazioak aurrera doaz?

Datuei begiratuta, Azpeitiko langabezia tasa %7 ingurukoa da. Eskualdeko, Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuen azpitik gaude. Baina 516 langabetu azpeitiar daude. Horregatik, azpeitiarrek herrian lan egiteko aukerak sortzea dagokigu. Horretarako, alde batetik, sektore ekonomiko desberdinei lagundu eta kontratazioa bultzatzeko Sustapen Ekonomikorako laguntzak dauzkagu. Eta, bestetik, lur industrialak eskaintzeko neurriak hartzen ari gara. Azpeitiko enpresei bertan hazteko aukerak sortu eta kanpokoei hona etortzeko gune erakargarriak sortzeko ari gara lanean. Tokiko ekonomia indartzeko neurriak hartzen jarraituko dugu.

Klima larrialdiari eta trantsizio ekologikoaren erronkari heltzeko Energia Plana osatzea proposatzen duzue..

Azpeitian, azken urteotan trantsizio energetikorako pausoak ematen hasiak gara. Eraikin publikoetan eguzki-plakak jartzen hasiak gara. Ekindar ere sortu dugu eta 500 bazkidetik gorak beren energia sortuko dute. Baina bide horretan eraldaketa sakonerako urratsak eman behar ditugu. Horretarako, herritarrak eta herri eragileak trantsizio ekologikoaren elkarriketan eta dinamikan inplikatzeko, Ingurumen Mahaia sortuko dugu krisi ekologikoari aurre egin eta trantsizio energetikoaren ezaugarri nahiz helburuak definitzeko.

Ingurumen Mahaia sortuko dugu krisi ekologikoari aurre egin eta trantsizio energetikoaren ezaugarri nahiz helburuak definitzeko



2023-2027 AGINTALDIRAKO UDALBATZA NAGORE ALKORTA ELORZA ALKATEAK ETA UDAL TALDEETAKO (AZPEITIKO EH-BILDU ETA AZPEITIKO EAJ-PNV) HAMAZAZPI ZINEGOTZIK OSATZEN DUTE.

EH Bildu



Nagore Alkorta Elorza



Leire Goenaga Uzkudun



Joanes Amenabar Altuna



Ander Larrañaga Zinkunegi



Leire Sarasua Odriozola



Mikel Odriozola Arakistain



Idurre Zabaleta Salegi



Ion Oteiza Gereta



Aitor Larrañaga Larrañaga



Miren Arrieta Artola

EAJ-PNV



Jabier Altuna Larrañaga



Nerea Aldai Garate



Antonio Gallarin Mendoza



Hegoa Ibarzabal Vaqueriza



Jokin Badiola Aguirrezabal



Edurne Emparan Garate



Alexander Silva Carmona

BATZORDEAK**Estrategia eta Hirigintza**

- 1.- Nagore Alkorta Elorza (EH Bildu) *
- 2.- Joanes Amenabar Altuna (EH Bildu)
- 3.- Ander Larrañaga Zinkunegi (EH Bildu)
- 4.- Jabier Altuna Larrañaga (EAJ)
- 5.- Antonio Gallarin Mendoza (EAJ)

Ogasuna, barne antolaketa eta langileria

- 1.- Leire Goenaga Uzkudun (EH Bildu) *
- 2.- Nagore Alkorta Elorza (EH Bildu)
- 3.- Mikel Odriozola Arakistain (EH Bildu)
- 4.- Nerea Aldai Garate (EAJ)
- 5.- Alexander Silva Carmona (EAJ)

Ekonomia, merkataritza eta turismoa

- 1.- Ander Larrañaga Zinkunegi (EH Bildu) *
- 2.- Leire Goenaga Uzkudun (EH Bildu)
- 3.- Nagore Alkorta Elorza (EH Bildu)
- 4.- Jokin Badiola Agirrezabal (EAJ)
- 5.- Nerea Aldai Garate (EAJ)

Kultura, euskara eta parte-hartzea

- 1.-Aitor Larrañaga Larrañaga (EH Bildu) *
- 2.- Mikel Odriozola Arakistain (EH Bildu)
- 3.- Leire Sarasua Odriozola (EH Bildu)
- 4.- Hegoa Larzabal Vaqueriza (EAJ)
- 5.- Alexander Silva Carmona (EAJ)

Festak, gazteria eta hezkuntza

- 1.- Mikel Odriozola Arakistain (EH Bildu) *
- 2.- Ander Larrañaga Zinkunegi (EH Bildu)
- 3.- Leire Sarasua Odriozola (EH Bildu)
- 4.- Hegoa Larzabal Vaqueriza (EAJ)
- 5.- Edurne Emparan Garate (EAJ)

Gizarte beharrak eta parekidetasuna

- 1.- Leire Goenaga Uzkudun (EH Bildu) *
- 2.- Idurre Zabaleta Salegi (EH Bildu)
- 3.- Miren Arrieta Artola (EH Bildu)
- 4.- Edurne Emparan Garate (EAJ)
- 5.- Nerea Aldai Garate (EAJ)

Kirolak


- 1.- Ion Oteiza Guereta (EH Bildu) *
- 2.- Mikel Odriozola Arakistain (EH Bildu)
- 3.- Ander Larrañaga Zinkunegi (EH Bildu)
- 4.- Jokin Badiola Agirrezabal (EAJ)
- 5.- Antonio Gallarin Mendoza (EAJ)

Ingurugiroa eta auzoak

- 1.- Joanes Amenabar Altuna (EH Bildu) *
- 2.-Ander Larrañaga Zinkunegi (EH Bildu)
- 3.- Mikel Odriozola Arakistain (EH Bildu)
- 4.- Antonio Gallarin Mendoza (EAJ)
- 5.- Edurne Emparan Garate (EAJ)

(*) Batzordeburua

Ondo pasatu festak!



www.azpeitia.eus

Azpeitia
Denontzat